



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2014KO APIRILAREN 15EKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2014.04.15.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.
Zinegotziak:
Ander Almandotz Indakoetxea jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Mikel Leiza Etxeberria jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-Isidro Echeverria Alzuri jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Juan Miguel Sein Apezteguia jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Larretako bidea: mugaketa espedientea.
- 5.-Espainiako banderari buruzko idatzia.
- 6.-Igantziko udal igerilekua.
- 7.-2014ko aurrekontua eta plantilla organikoa: hasierako onespena.
- 8.-Alkatearen ebazpenak.
- 9.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2014ko martxoaren 14an eta apirilaren 11n egindako bileren aktak ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DITUZTE.

Mikel Leiza Etxeberria jauna ateri da bilera aretotik.

2.-ISIDRO ECHEVERRIA ALZURI JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Isidro Echeverria Alzuri jaunak Mugarai alderdian pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (entresaka, 6. poligonoko 98. eta 99. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Isidro Echeverria Alzuri jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik 157,50 euroko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea .

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

Mikel Leiza Etxeberria jauna bueltatu da bilera aretora.

3.-JUAN MIGUEL SEIN APEZTEGUIA JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Juan Miguel Sein Apezteguia jaunak Artxamana alderdian 3 zuhaitzen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (pagoen matarrasa, 4. poligonoko 2. lur zatian).

Kontuan hartuz lurra komunala dela.

Ikusirik Arantzako Udalak irazlaien hitzarmena sinatzeko onartutako oinarrien 9. artikulua eta horren arabera partikularrak egindako landaketa berak probetxuko duela baino Udalari Mendiko Zerbitzuak eginen duen balorazioaren %10a ordaintzeko baldintza pean.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan Miguel Sein Apezteguia jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea eta mendizainari probetxamenduaren balorazioa egiteko eskatzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4.-LARRETAKO BIDEA: MUGAKETA ESPEDIENTEA.

Gai hau mahai gainean utzi da.

5.-ESPAINIAKO BANDERARI BURUZKO IDATZIA.

Ikusi da aurkeztutako herritarren sinadura bilketa ondorengo adieraziz:

“-Herriko udaletxean espainiar bandera ikusteak samina eragin digula.

-Bandera horrek gure sentimenduen zapalkuntza adierazten duela eta horregatik guztiz errepudiatzen dugula.

-Gure ikurrak Nafar ikurra eta ikurriña ditugula, eta horiek eta soilik horiek hartzen ditugula gureak bezala, inolako bertzerik onartu gabe beraien gainetik.

-Gure sentimenduak ez dituztela aldatuko isunen mehatxupean inposatu diguten bandera udalean ezarriz.

-Ozen diogu: Espainiar banderarik EZ!”



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Udalbaltza jakinaren gainean gelditu da.

6.-IGANTZIKO UDAL IGERILEKUA.

Igantzikoko Udalak tarifa desberdinak ditu herriko igerilekura sartzeko Igantzin erroldatuak direnentzat eta kanpotarrentzat.

2013ko urtean Arantzako Udalak 1.000,00 euro ordaindu zion Igantziko Udalari aranztarrei Igantzin erroldatuak diren bezala kobratzeko.

Ander Almandoz Indakoetxea jauna ez da ados agertu diru laguntza edo ordainketa hori egiteko eta proposatzen du kopuru hori gastatzea herritarrei bueltatuz ordaindutakoa.

Gainerako zinegotzien aldeko botoekin, ERABAKI DUTE:

1) 1.000 euro ordaintzea Igantziko Udalari, Arantzako herritarrek Igantziko herritarrek ordaintzen duten prezio bera kobratzeko baldintza.

7.-2014KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA: HASIERAKO ONESPENA.

7.1.-2013ko aurrekontuaren egitasmoa eta exekuzio oinarriak ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez ERABAKI DUTE:

- 1) 2014ko aurrekontuaren eta exekuzio oinarrien espedientea hasiera batean onartzea.
- 2) Espedientea jendaurrean hamabortz egunez paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkez ditzaten.

7.2.- Arantzako Udaleko 2014ko plantilla organikoa ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez ERABAKI DUTE:

- 1) 2014ko Arantzako Udaleko plantilla organikoa onartzea.
- 2) Espedientea jendaurrean hamabortz egunez paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkez ditzaten.

8.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2014ko 19.etik 23. arteko ebazpena).

9.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

10.-ZANGOZAKO MANIFESTUA ESA HANDITZEAREN AURKA

Iragan irailaren 28an Esa handitzearen alternatibei buruzko jardunaldia burutu zen Zangozan. Bertan, presatik uretan behera dauden biztanleen segurtasuna eta oraingo urtegiaren erabilerak mantentzea uztzartzen dituzten irtenbide posibleak aztertu ziren.

Jardunaldian ondoko puntu hauek azaldu ziren:

· Segurtasun arazo larriek jarraitzen dute

Handitzeko lanetan etengabe agertzen ari diren arazo larriek agerian uzten dute Esako mehargune ezengokorrean ura biltzeko arrisku larria. 2006ko eta 2012ko irristatze handiek -bi urbanizazioen utzaraztea eta hegalak egonkortzeko alferrikako saioretan hamarnaka milioiren xahutzea eragin zutenak- 1993tik hainbat teknikari independentek eman izan dituzten oharpenak balioesten dituzte. Era berean, eskatu beharreko segurtasun koefizienteak desitxuratzen eta arrisku sismikoak gutxiesten dituzten EKHren analisiak ezeztatzen dituzte.

Gardentasunaren ordez, ezkutuko interesak dituen proiektua

Esa handitzeko lanak beharrezkoak diren informazio eta parte-hartze publikorik gabe egiten ari dira, proiektuaren benetako interesak ezkututuz. Esan sortzen den Bardeetako kanala gehieneko edukiera beteta jaisten da uda partean, proiektuak proposatzen dituen ureztaketa berrietara ur gehiago eramaterik ez duen 'botila-lepo' bilakatuz. Benetako arrazoiak mintzaldi ofizialetan ezkututzen dira eta hauek dira: Mediterraneoko kostaldera ura eramatea eta hormigoia eta hidroelektzitatearen sektoreen interes espekulatiboak.

Bidegabekeria ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa

Esa handitzeko aurrekontua hirukoiztu egin da: 109 milioi eurotik 305 milioitik gorako kopurura. Beraz, justifikaziorik gabeko lan horietan gastua areagotzen ari dira, noiz eta hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuak murrizten ari direnean. Esa handitzeko proiektua Ebroko plan hidrologikoaren barruan dago. Plan honek, aldaketa klimatikoaren aurrean ezikusiarrena eginez, are ur gehiago erauzi nahi du ibaietatik. Ebroko deltari kolpe latza emateaz gain, arriskuan jartzen du hurrengo belaunaldietakoek ura modu iraunkorrean erabili ahal izatea.

Segurtasuna eta gaur egungo urtegiaren erabilerak uztartzen dituen alternatibarik badago

Urtegiako lamina kanaletik gertuko maila batera jaisteak nabarmen areagotuko luke segurtasuna. Ustiategiaren berregituraketak eta proiektua handitzeak baino kostu gutxiago duen kanalean zeharreko urtegiaren eraikuntzak oraingo urtegiaren erabilera nagusiak mantentzea ahalbidetuko lukete.

Horregatik, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ondorengo manifestua onartzea:

-Esako urtegia handitzeko proiektua gelditzea, eragiten dituen ageriko segurtasun arazoengatik eta maila ekonomikoan, sozialean eta ingurunean duen jasangarritasun ezarengatik.

-Ez dadila urtegia betetzeko baimena eman segurua izango den maila batetik gora, presaren inguruan dauden ezegonkortasun arazo larriak aztertzen eta konpontzen ez diren artean.

-Zangoza, Oibar, Galipentzu eta Gabarderal herrietako udalek eta baita Nafarroako Parlamentu berak ere Esako segurtasunari buruzko azterketa independenteak egiteko plazaratu zuten eskaera babestea, sortu den egoera zailaren aurrean irtenbiderik hoberena aurkitzeko asmoz.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

-Iraileko jardunaldietan sortu zen alternatiba kontuan har dadila. Bertan, uretan beherako herritarren segurtasuna gehitzea eta urtegiaren erabilerak mantentzea uztartzen da.

11.-OIHAN PROBETXAMENDU ENKANTEA.

Mendi Zerbitzuko Zuzendariaren 2014ko otsailaren 25eko 0116. Ebazpenaren bidez, Arantzako Udaleko mendi komunaleko 2013ko probetxamendu eta hobekuntzen plana onartzen du eta ondorioz, oihan probetxamendua egiteko baimena eman du, erantsiz horren baldintza tekniko partikularren plegua.

- Lotea: 25.242,00 eurotan baloratua dago pinu insignis, pinu laricio eta alertzen lotea, Argantsoro, Ekaitza eta Zerrado alderdietan kokatuak.

Aho batez, ERABAKI DU:

1) Aipatutako alderdietako lotearen zuhaitz desberdinen oihan probetxamendua egiteko onartzea, enkantea eta plegu itxiaren bidez, eta hasierako prezioa 25.242,00 eurokoa izanik.

2) Nafarroako Gobernuko baldintza teknikoen pleguarekin batera, probetxamenduaren salmenta arautuko duen baldintza ekonomikoen plegua onartzea.

3) Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta bertzelako publizitatea ere egitea.

4) Etxebeste Anaiak, Embalajes Martinez, Maderas Santesteban eta Donato Larretxea enpresei enkantearen berri ematea.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Jaime Iturria Mitxelena jn.



